



Arartekoaren 2015R-625-15 Ebazpena, 2015eko urriaren 21koa. Horren bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari gomendatzen zaio XXX irakasleen ordezkapenatarako hautagaien zerrendetatik kanpo uzteko erabakia berriz pentsatzeko (625/2015/QC zenbakidun kexa-espeditatea).

Aurrekariak

1.- Erakunde honetan XXX-en kexa-idatzia jaso zen. XXX Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan izan daitezkeen aldi baterako irakasle-beharrizanak estaltzeko zerrendetako hautagaia da; zerrenda horiek irakasleen ordezkapenatarako hautagaien zerrenda izenarekin ere dira ezagunak.

XXX-i plaza bat eman zitzaion XXX-ko XXX GLHBI ikastetxean 2014-2015 ikasturte hasierako esleipen-prozesuan. Hala ere, interesdunak ezin izan zuen eskatutako egunean plaza hori bete: 2014ko irailaren 1ean. Kexan honako hau azaldu zuen.

“(...) El día 31 de agosto, domingo, encontrándonos en XXX (XXX), mi hija XXX, de 9 de años de edad, se puso enferma. Ante esta situación acudí a la doctora doña XXX, que se encontraba allí para que la viera y me aconsejara sobre lo que convenía hacer. La doctora tras examinar a la niña nos dijo lo que tenía, como tratarlo y nos indicó que ésta no estaba en condiciones de viajar y que su estado era lo bastante grave como para que permaneciera en la cama unos días y siendo supervisada, aunque en ese momento no parecía necesario acudir a urgencias. (XXX es una localidad que pertenece al municipio de XXX, del que dista 7km. En XXX hay servicio de urgencias aunque no para la especialidad de pediatría, de hecho, las consulta de pediatría se pasan los miércoles y las urgencias de pediatría son atendidas en la capital, que está a unos 120 km.).

En tal situación y bajo la previsión de que las labores a realizar por la madre de la niña en su puesto de trabajo, eran más intensas y de mayor calado que las que debía realizar yo, decidimos que ella acudiera a su puesto de trabajo al día siguiente y yo permaneciera al cuidado de nuestra hija. En ese momento, desconocía las consecuencias de esa decisión.

La niña evolucionó favorablemente y tras dos días volvimos a casa por lo que me dirigí al centro escolar que me había sido asignado el día 4 de septiembre. Al llegar al centro se me comunicó que mi plaza había sido reasignada y que me dirigiera a la delegación de XXX.

Una vez en la delegación, fui informado de que lo más probable era que fuera sancionado con una exclusión de las listas por dos años....”

Hori gertatu ondoren (egokitutako plaza ez hartzeari buruz ari gara), Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak egoera horietarako izapideak hastea erabaki





zuen, unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 44.3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Izapide horiek Langileen Kudeaketako zuzendariak 2014ko azaroaren 13an emandako Ebazpenarekin amaitu ziren; eta, hain zuzen ere, XXX Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan irakasleak ordezkatzeko hautagaien zerrendatik kanpo uzteko erabakia hartu zuen.

Ebazpen horrekin ados ez zegoenez, XXX-ek gora jotzeko errekurtsua garaiz jarri zuen, Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen 2015eko otsailaren 6ko Ebazpenaren bidez ezetsi zena. Orduan, azken ebazpena jakinarazi zenean, XXX-ek erakunde honetan aurkeztu zuen kexa.

2.- Kexa hori izapidetzea erabaki ostean, erakunde honek 2015eko otsailaren 6ko Ebazpena aztertu zuen, XXX-ek jarritako errekurtsua ezetsi zuena.

Azterketa egin ondoren, erakunde honek beharrezkotzat jo zuen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradunei hainbat balorazioen berri ematea, eta balorazio horien inguruan zuten iritziaren zain geratu zen.

Errepikakorrak ez izateko, ez ditugu orain balorazio horiek zehatzago aipatuko; izan ere, arreta handiagoarekin hitz egingo dugu horiei buruz ebazpen honen gogoeten atalean.

3.- Gure eskaerari erantzuteko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradunek Langileen Kudeaketako zuzendariak egindako txosten bat bidali zioten erakunde honi.

Txosten horretan, interesdunaren kasuari dagokionez egindako jarduketa guztiak laburbildu ziren, eta, bereziki, hauxe nabarmendu zen:

- 2014-2015 ikasturterako kokatze-prozesuan egokitutako plaza bete ezin izan zuenean, XXX-ek ez zuen hezkuntza-administrazioari bere egoera azaltzeko inolako asmorik erakutsi. Baieztapen hori justifikatzeko, interesdunak modu irekian eta idatzi batean azaldutakoa hitzez hitz errepikatu zen txostenean: *"Reconozco no haber tomado posesión de la plaza en la fecha que se establece, siendo el motivo el que mi hija se encontraba enferma, y no hallándome en mi domicilio habitual no he podido desplazarme al centro. Tampoco me puse en contacto con el mismo por considerar que la toma de posesión exigía personarse en el centro y que la mera comunicación telefónica no sería suficiente"*.
- Interesduna ordezkapenatarako zerrendetatik kanpo uzten zuen ebazpena ematean, sailak kontuan hartu zuen eta baloratu zuen gauza bakarra izan zen uko egitea justifikatzeko arrazoirik ez zegoela; izan ere, alabaren gaixotasuna ez zen beharrezkoa zen ziurtagiri medikoarekin





behar bezala egiaztatu. Horri dagokionez, txostenean behin baino gehiagotan errepikatu zen interesdunak aurkeztutako mediku kolegiatuaren adierazpenean ez zela aipatzen adingabearen gaixotasuna larri gisa sailkatu zitekeenik. Horrez gain, adierazi zen interesduna ez zela osasun-zentro batera joategatik kezkatu, alabaren gaixotasunaren larritasuna egiazta ziezaioten. Alabaina, txosten horretan, aurretik planteatu ez zen beste kontu bat aintzat hartu zen lehenengoz; izan ere, interesdunak aurkeztutako medikuaren adierazpena aipatzean: *"tampoco queda claro si dicha declaración se puede considerar formalmente un certificado"*.

- Interesdunaren alabaren larritasunari edo larritasun ezari dagokionez, zerrendatik kanpo geratzearen aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua ezesteko ebazpenean ageri diren argudioak nahiko argiak dira, eta hezkuntza-administrazioaren iritzia modu trinkoan azaltzen dute.
- Interesdunaren kasuari buruzko iritzia adieraztean, espedientean jasotako datuak eta informazioa bakarrik hartu dira kontuan, besterik ez.

Hala ere, txosten horretan ez zen erakunde honek egin zituen balorazioen gaineko inolako gogoetarik agertzen. Hortaz, ulertzen dugu Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradunek ez zutela horietako bat ere aztertu.

Gogoetak

1.- Kasu honetan beharrezkoak diren gogoetak adierazi aurretik, garrantzitsua deritzogu gure azterketaren xedea zein izan den argitzea; hain zuzen ere, hezkuntza-administrazioak egindako jarduketa zehatza izan da xedea, baina lanpostua betetzen ez den balizko kasuetarako izapideak hasteko erabakia hartu eta gero. Izapide horiek irakasleen ordezkapenentarako hautagaien zerrendak kudeatzeko araudian xedatuta daude, eta jarduketa, ebazpen honen aurrekarietan atalean azaldu dugunez, Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen 2015eko otsailaren 6ko Ebazpenean zehaztu zen, zeinaren bidez interesdunak egindako gora jotzeko errekurtsua ezetsi zen.

Ebazpen horretan, interesdunak aurkeztutako medikuaren txostenak hitzez hitz errepikatu eta gero, "gaixotasun larria" kontzeptua azpimarratu zen. Juridikoki zehaztugabe dagoen kontzeptu bat da, gaixo bakoitzaren egoeraren zein inguruabarren arabera zehaztu behar dena, eta hainbat argudio azaldu behar dira (horiez geroago arduratuko gara). Amaitzeko, hauxe jaso zen: *"no podemos considerar que en el presente caso nos encontremos ante un supuesto de "enfermedad grave" a los efectos pretendidos por el recurrente"*.

Esan dugun bezala, horren ondorioz, gure esku-hartzean puntu horretan jarri dugu arreta, hau da, interesdunak ikasturte hasierako esleipen-prozesuan egokitu zitzaion plaza betetzeko unean, haren alabak bizitako egoera gaixotasun larriko egoeratzat





jo daitekeen ala ez zehaztean, modu justifikatuan uko egin zuela ulertzeko. Hori guztia ebazpen honen edukiaren azterketa kontuan hartuta izango da.

Gure esku-hartzeari erantzuteko Langileen Kudeaketako zuzendariak idatzitako txostenean, bi kontu berri aipatu ziren, aurrekarien azken atalean jasota geratu direnak. Jakin badakigu kontu garrantzitsuak direla, baina, gure ustez, azaltzen saiatuko garenez, ezin ditu Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen 2015eko otsailaren 6ko Ebazpenenaren azterketatik ondorioztatutako genituen balorazioak aldarazi. Balorazio horiek berriz errepikatu behar ditugula iruditzen zaigu, batez ere, Langileen Kudeaketako zuzendariaren txosten horretan aztertu eta egiaztatu ez direlako.

Horregatik, jarraian agertzen den aurkezpena antolatzeko, lehenik eta behin, gure lehenengo azterketaren balorazioei berriro ekingo diegu, eta, ondoren, Langileen Kudeaketako zuzendariak idatzitako azken txostenean jorratutako gai berriak aztertuko ditugu.

2.- Aurreko puntuan nabarmendu dugun moduan, gure esku-hartzean arreta jarri dugu kearen sustatzaile interesdunaren alabaren gaixotasuna larria zen ala ez zen zehaztean, Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen 2015eko otsailaren 6ko Ebazpenean erabilitako argudioak oinarri hartuta.

Horri buruz, egindako txostenean, Langileen Kudeaketako zuzendariak adierazi du ebazpenean ageri diren argudioak aski argiak direla, eta labur-labur azaldu du hezkuntza-administrazioaren iritzia zein den.

Beraz, derrigorrezkoa da argudio guzti-guztiak berriz ere aintzat hartzea eta aztertzea:

2.1.- Lehenengo argudioaren arabera, adingabearen koadro medikoa ez da beren-beregi sailkatu zenbait baimen zehatz emateko gaixotasunen barruan. Zehazki, langileen lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko baimenei buruzkoa da.

Horri dagokionez, adierazi behar dugu, gure lehenengo balorazioetan egin genuen bezala, ezin dela eztabaidatu adingabearen gaixotasuna 3/2014 Instrukzioan beren-beregi jasotako gaixotasunen batekin bat egiten duenik. Instrukzioa abenduaren 5ean eman zuen Funtzio Publikoko sailburuordeak, eta Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren 49 e) artikuluan eta Langileen Estatutuaren 37.5. artikuluan araututako baimena emateko baldintza eta eskakizunei buruzkoa da.

Alabaina, azaldu genuen bezala, ezinbestekoa da argi edukitzea Funtzio Publikoko sailburuordearen abenduaren 5eko 3/2014 Instrukzioan aipatutako baimenak, lanaldi murrizketari dagokionak, ez duela inolako zerikusirik gaixotasun larriagatik ematen diren balizko baimenekin, azken





batean, lizentzia egun tasatu batzuei dagozkienak baitira (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 48. artikulua).

Beraz, ez dugu egokitzat jotzen gaixotasun bat larri gisa aitortzea bideratzea, dagozkigun ondorioetarako, hots, modu justifikatuan plaza bat ez betetzeko arrazoi bat bezala ulertzeko edo ez, 3/2014 Instrukzioan jasotako balizko kasuetan bakarrik. Gainera, administrazio-praktika arruntaren errealitatea, gaixotasun larriagatik ematen diren lizentziak baimentzeari dagokionez, mugatzaile izatetik oso urrun dago.

2.2.- 2015eko otsailaren 6ko Ebazpenean erabilitako beste argudioetako batean nabarmendu nahi izan da adingabea zaintzeko eta babesteko betebeharra ez dela soilik aitarena, bi gurasoena baizik. Horrez gain, betebehar hori eztabaidatu gabe, azpimarratu nahi izan da ez zela salbuetsita geratzen eduki ahal zituen beste betebehar batzuk betetzetik.

Hain zuzen, horri dagokionez, gure azterketatik ateratako balorazioetan, derrigorrezkotzat jo genuen esatea interesdunak kexarekin batera aurkeztu zigun dokumentazioa irakurtzean ez genuela antzeko irudipenik izan. Alderantziz, dokumentazio horretan interesdunak errepikatu zuen emazteak ere lan-ardura garrantzitsuak zituela eta horregatik erabaki zutela ama izatea lanera joango zena. Bestalde, baieztatu zuen, nahitaezkoa izanez gero, enpresaren ziurtagiri bat aurkeztu ahal izango zuela emaztea iraileko lehenengo egunetan lanera joan zela egiaztatzeko.

Langileen Kudeaketako zuzendariak eman zigun erantzunean alderdi hori jorratzea saihestu zen, espedientea eta ondorengo gora jotzeko errekurtoa ebaztean jasota ez zegoen informazioa zela aitzakia hartuta.

Hori guztia argudiatzeko esan daiteke inguruabar horiek ez zirela aintzat hartu lehenengo ebazpena emateko orduan eta, beraz, ez zuten alegazio berezirik merezi izan interesdunak errekurtoa egitean. Hala eta guztiz ere, geroago azalduko dugunez, bene-benetan uste dugu Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradunek beste inguruabar batzuk aintzat hartzeko gogo ezaren lagin hutsa dela. Gure ustez, inguruabar horiek ere adierazgarriak dira, gaixotasuna klinikoki erreparatzen harago baitaude eta ezberdinak baitira.

2.3.- Edonola ere, gaixotasun larri bati buruzko kasu baten aurrean ez gaudela ulertzeko hezkuntza-administrazioak erabilitako behin betiko argudioak izan ziren gurasoak ez zirela osasun-zentro batera joan eta adingabea aztertu zuen medikuak egindako gomendioak, baita sintomatologia ere.

Erakunde honen iritziz, gure hasierako balorazioetan jasota geratu zen legez, mota horretako argudioekin, hezkuntza-administrazioak zalantzan jartzen du adingabea aztertu zuen medikuaren irizmenaren fidagarritasuna. Medikuek,





2014ko abenduaren 3an egindako bigarren txostenean, berretsi zuen neskatoak abuztuaren 31n aurkeztu zuen koadro medikoa larria zela, nahiz eta une hartan ez zen premiazkotzat jotzen osasun-zentro batera bertaratzea, eboluzioaren jarraipenaren kaltetan joan gabe, azkenean, ona izan zena.

Esan ahal izan dugun moduan, ordezkapeneterako hautagaien zerrendak kudeatzeko araudian, senideen gaixotasun larriengatik gertatutako uko egite justifikatuaren arrazoia jasotzean, bakarrik eskatzen da medikuaren ziurtagiri batekin beren-beregi bermatuta egotea. Hortaz, baliotasun formala zalantza jarri gabe medikuaren adierazpen hori dagoela kontuan hartuta, ezin da eskatu adierazpen horrekin batera osasun-zentroko beste txosten bat eransteko. Ezin dira deskribatutako sintomatologia eta medikuak egindako gomendioak baloratu; izan ere, hori eginez gero, medikuaren jokabidea zalantzan jarriko litzateke, baita haren profesionaltasuna ere, ikuspuntu deontologikotik.

Berriz ere errepikatu nahi dugu eta argi utzi nahi dugu, batez ere, ez gatozela bat 2015eko otsailaren 6ko Ebazpenean modu justifikatuan uko egiteko arrazoi gisa argudiatutako gaixotasunaren larritasun eza justifikatzeko erabilitako argudioarekin.

Hala ere, egokitze jotzen dugu gure hasierako azterketatik ondorioztatutako balorazioetan jasotako hainbat gogoeta hizpidera ekartzea. Horien bidez, gure asmoa izan zen esku artean genuen kasuan agerian uztea gaixotasunaren larritasunari edo larritasun ezari buruzko eztabaidak adingabe bati eragiten ziotela eta, beraz, haren interesa kontuan hartu behar zela, interesdunak ikasturte hasierako esleipen-prozesuan egokitutako lanpostua bete behar zuen unean bertan neskatalak gaixotasun larri bati aurre egin behar izan ziola zehazteko. Azaldu genuen bezala, gure ustez, hezkuntza-administrazioak ez du horrelakorik egin, hartutako erabakia justifikatzeko erabilitako argudio bakarrak aurreko puntuan jasotakoak baitira, besterik ez.

Gure iritziz, mota horretako kasuetan, non gaixotasunaren larritasunari buruzko zalantzak sortzen diren, aintzat hartu behar da ukitutako pertsonak adingabeak direla, eta, ondorioz, norbaitek laguntzeko eta zaintzeko premia izan dezaketela. Laguntza eta zaintzari buruzko ohar hori argi uzteko, egokitze jotzen dugu honako adibide hau aipatzea: adingabeak ingesatu behar diren kasuetan, Osasun Sailak adingabe izatearen inguruabar hori kontuan hartzen du; beraz, lagundu eta zaintzeko premia aintzat hartzen du senideen joan-etorrietarako dietak ordaintzeko. Kasu horietan kontuan hartzen dena da adingabearen egoera klinikoagatik zaintzaile baten presentzia ezinbestekoa den ala ez. Premia hori da, ez larritasun kliniko, zaintza sustatzea eta joan-etorrien gastuak ordaintzea ekartzen duena.

3.- Gure azterketatik sortutako balorazioak gogoratu eta errepikatu ostean, Langileen Kudeaketako zuzendariak egindako txostenean jorratutako gai berriak eztabaidatu behar ditugu. Txosten hori erakunde honen esku-hartzeari erantzuna emateko idatzi zen.





3.1.- Horietako batek zerikusia du **XXX-ek**, lanpostua bete ez zuen unean, hezkuntza-administrazioari egoera horren berri emateko erakutsi zuen borondate ezarekin.

Azken horri dagokionez, esan behar da irakasleen ordezkapenatarako hautagaien zerrendetako kideei, besteak beste, eragiten dien ikasturte hasierako esleipen-prozesua arautzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko uztailaren 15eko Aginduak ez duela inolako zalantzarik jartzen egokitutako lanpostuen izaera ukazina baieztatzean, ordezkapenatarako zerrenda horiek kudeatzeari buruzko araudian ezarritako modu justifikatuan uko egiteko arrazoiren bat egon ezean (38.1. artikulua).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren bidez onetsi zen irakasleen ordezkapenatarako hautagaien zerrendak kudeatzeko araudi horretan, zerrendatik baztertuta geratzeko balizko kausei dagokienez, besteak beste, egokitzeko lanpostua ez betetzeari buruzko arrazoiak jasotzeaz gain, beren-beregi aipatzen du uko egiteko arrazoiak araudi horretan eta aurretik aipatutako 2011ko uztailaren 11ko Aginduan (44.1. e) eta f) artikulua) xedatutako epeen barruan eta baldintzetan ez argudiatzea eta egiaztatzea.

Zehatzago, ordezkapenatarako hautagaien zerrendak kudeatzeari buruzko araudi horretan, justifikatutako uko egiteen arrazoiak aipatzean, bestek beste, behin-behineko bajaren ustezko kasuren batean egotean (gaixotasun larriko egoeran gertatzen den bezala), ezartzen da behin-behineko baja eragiten duen edozein inguruabar argudiatzen duen pertsona egoera hori izatera igaroko dela, betiere, egitate eragilea hiru eguneko epean egiaztatzen baldin badu (40.1. a) artikulua).

Hori guztia gogoan hartuta, begien bistakoa da onartzea irakasleen ordezkapenatarako hautagaien zerrendetatik behin-behinean baztertuta geratu ahal izatearen arrazoi bat izan daitekeela modu justifikatuan uko egiteko arrazoi epe barruan egiaztatu ez izana, behar den moduan funtsatu dela gorabehera. Dena den, egia da esku artean dugun kasu honetan, hezkuntza-administrazioak ez diola inoiz aukera horri erreparatu, interesdunaren ardura gutxiko jarrerari ez baitio inolako ondoriorik egotzi.

3.2.- Beste kontu berri batek zerikusia du **XXX-ek** alabaren gaixotasunaren larritasuna egiaztatzeko aurkeztu zuen medikuaren adierazpenarekin.

Lehenago adierazi dugun bezala, txosten horretan lehenengoz sortu zen adierazpen hori ziurtagiri formaltzat jo ote daitekeen planteatzen zuen zalantza.

Irakasleen ordezkapenatarako hautagaien zerrendak kudeatzeari buruzko araudira berriro joz gero, erraza da egiaztatzea araudian oso argi zehazten





dela modu justifikatuan uko egitea ahalbidetzen duen gaixotasunaren larritasuna beren-beregi bermatu behar dela beti medikuaren ziurtagiri batekin (30. 1. g) artikulua).

Hori bai, araudiak ez du beste baldintzarik eransten, hala nola ziurtagiri hori zerbitzu publikoko edo larrialdietako osasun-zerbitzuko medikuek igorri behar dutela exijitzea.

Aitortu behar dugu ulertzekoa dela XXX-ek aurkeztutako adierazpenari buruzko zalantzak sortzea, formalki ziurtagiritzat jo badaiteke edo ez, alegia. Edonola ere, egoera horrek bultzatuta, hezkuntza-administrazioak egin behar zuena zen interesdunari eskatzea aurkeztutako adierazpena alabaren egoeraren berri izan zuen mediku baten beste ziurtagiri baten bidez osatzeko edo zuzentzeko.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

XXX irakasleen ordezkapenatarako hautagaien zerrendetatik kanpo uzteko erabakia berriz pentsatzea, ebazpen honetako gogoetetan jasotako balorazioak bere eginez.

